

ELIKADURA BURUJABETZA EREITEN

Nekazaritza arloko Lanbide Heziketara
zuzendutako Unitate Didaktikoa



alimentación
Landa ingurua sustatzeko eskolen sarea



SEMBRANDO Y COCINANDO
SOBERANÍA ALIMENTARIA

ELIKADURA BURUJABETZA EREITEN

Nekazaritza arloko Lanbide Heziketara zuzendutako Unitate Didaktikoa

Argitalpen honek Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziaren (AECID) diru-laguntza izan du. Argitalpenaren edukia Hegoa Institutuaren eta Bidezko Elikadura elkartearen erantzukizun osoa da eta ez du zertan AECIDren iritzia adierazi.

Argitaratzaileak:



Florida Blanca Kalea, 66-72
5. lokala, 08015.artzelona
Tel: 93 423 70 31

www.justiciaalimentaria.org
www.alimentacion.net



Zubiria Etxea. UPV/EHU
Lehendakari Agirre etorb, 83
48015 Bilbao

Tel: 94 601 70 91

Arabako Campuseko Liburutegia. UPV/EHU
Nieves Cano, 33
01006 Gasteiz

www.hegoa.ehu.es

2019ko iraila

Diseinua eta maketazioa: Laura Fernández Blanco
Itzultzailea: Iñigo Gallastegi



Argitalpen honek Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziaren (AECID) diru-laguntza izan du.

Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Espainia

Lan honek Creative Commons lizentzia du. Baimenduta dago lan hau kopiatzea, banatzea eta publikoki komunikatzea egilea aitortzen bada eta helburu komertzialekin erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu, eraldatu edo lan honetatik beste bat eratorri.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/>

00

AURKIBIDEA

01. Sarrera	4
02. Unitate Didaktikoaren eskema	6
03. Lehenengo saioa. Elikadura Burujabetza vs. eredu agroindustriala	8
Jarduera 1.1. Aurkezpen laburra.	9
Jarduera 1.2. Aldez aurreko ezagutzak: Elikadura Burujabetza, zer da?	9
Jarduera 1.3. Bi tomate eta bi patu. Zein aukeratu?	10
04. Bigarren saioa. Nekazaritza- eta elikadura-ereduaren ondorioak hemen eta han	12
Jarduera 2.1. Jarduera. Role playing. Elikaduraren arloko egoera desberdinen dramatizazioa.	13
Jarduera 2.2. Jarduera. Hurrengo saioaren prestaketa.	14
05. Hirugarren saioa. Txangoa: Agroekologia, errealitate bat	15
Jarduera 3.1. Esperientzia agroekologiko bat bisitatu.	16
06. Laugarren saioa. Elikadura burujabetza, ekoizpen ekologikoa baino gehiago	17
Jarduera 4.1. Iraunkortasunaren lorea.	18
07. Jarraipen-saioa. Teoriatik praktikara: Gastronomía-erakusketa jasangarria	19
Jarduera 5.1. Barazki ekologikoak haztea eta fitxak prestatzea.	20
Jarduera 5.2. Ikastetxe arteko topaketa: ostalaritza eta nekazaritza ikastetxeak .	20
08. Ebaluazio proposamenak	21
Genero-behaketari buruzko errubrika.	22
Ikasleen talde-lanari buruzko ebaluazio-errubrika.	24
09. 1. eranskina. Familien istorioak	28
10. 2. eranskina. Behaketa-fitxak	32

01

SARRERA

NORK PROPOSATZEN DU

«Elikadura burujabetza erein eta kozinatuz» proposamena **Bidezko Elikadura eta Hegoa** erakundeek koordinatzen dute. Erakunde horietako kideok landa-garapen eredu bidezkoa eta elikadura egokia izateko eskubideak sustatzen ditugu. Hala, gaur egungo elikadura-eredua aldatu behar dugula uste dugu; izan ere, horrek gaixotzen eta zapaltzen gaitu, komunitate baserritarrak kanporatzen ditu eta ingurumena suntsitzen du. Aldaketa hori lortzeko **Elikadura Burujabetza** ezinbestekoa da.

Gure helburua erdiesteko Latinoamerikako eta Afrikako zenbait herrialdetan eta Espainiako estatuan lan egiten dugu, lankidetzaren, hezkuntzaren, ikerketaren, komunikazioaren eta politikan eragitearen bitartez.



Elikadura burujabetza herriek beren nekazaritza- eta elikadura-politikak zehazteko duten eskubidea da, garapen iraunkorreko eta elikadura-segurtasuneko helburuen arabera. Elikadura burujabetzak, beraz, honako hauek babestea eskatzen du: tokiko merkaturak, nekazaritza-baliabideak eskuratzeko baserritarrek dituzten eskubideak eta pertsona guztiek elikagai nutritiboak eta agroekologikoak izateko duten eskubidea.

NON KOKATZEN DA UNITATE DIDAKTIKO HAU

Unitate didaktiko hau «Elikadura burujabetza erein eta kozinatuz» prozesuan kokatzen da eta Nekazaritza arloko eta Ostalaritza eta Turismoa arloko Lanbide Heziketetara zuzendutako hezkuntza-proposamena da.

Lanbide horiek elikagaien ekoizpenari, banaketari eta kontsumoari lotuta daude eta, hala, proposamen honen helburua ziklo horietako ikasleek nagusi den elikadura ereduaren mundu mailako eta tokiko ondorioak ezagutzea eta sektoreko profesional bezala izango duten rolaz jabetzea da; hori guztia genero-berdintasun ikuspegi batean oinarrituz.

Gelako saioez gain, prozesuak beste jarduera batzuk ere aurreikusten ditu. Nekazaritza arloko Lanbide Heziketaren kasuan, hain zuzen, honako hauek ere burutuko dira: **nekazaritza ekimen jasangarri batera bisita** bat eta, azkenik, probintzia-mailan, ostalaritza arloko ikasleekin **esperientziak partekatze topaketa** bat. Azken horretan nekazaritza- eta elikadura-sistemaren oinarri bien arteko harremanaren garrantzia bistaratuko da. Topaketa horretarako, nekazaritza ikasleek beraiek ekoiztutako elikagaiak emango dituzte. Elikagai horietako bakoitzak azalpen-fitxa bat izango du. Hala, barazki horiek erabiliz, ostalaritza ikasleek plater desberdinak prestatuko dituzte.

ZEINTZUK DIRA HELBURU OROKORRAK

- Nekazaritza- eta elikadura-eredu bi hauen ezaugarriak eta mundu mailako eta tokiko ondorioak aztertzea: elikadura burujabetza eta eredu agroindustrialak.
- Eredu agroindustrialak sortzen dituen gizarte-, ingurumen- eta osasun-arazoak ezagutzera.
- Arazo horiek dagokion praktika profesionalarekin lotzea.
- Elikadura-eredu osasungarria, bidezkoa eta iraunkorra sustatzen duten benetako alternatibak sortzea, ikasleek etorkizunean izango dituzten lanbideetan burutu ahal izango dituztenak.

ZEIN DA METODOLOGIA

Proposamenak metodologia aktiboak erabiltzen ditu. Ikuspegi sozio-afektibotik planteatzen da, ikasleen esperientzia eta ezagutzetan oinarrituz eta ikasleak landutako gaien partedun eginez. Hala, ikasleek gai horiek beraien egunerokoarekin eta etorkizun profesionalarekin lot ditzaten lortu nahi dugu.

Horretarako, bada, parte hartzeko dinamikak proposatzen dira. Proposatutako tresnen artean ikus-entzuneak, antzerkia, eztabaida eta bideo-jokoak ere aurkitzen ditugu. Halaber, proiektu bidezko ikasketaren jarraibideak erabiltzen dira; izan ere, metodologia horren bitartez, ikasleek, ezagutzak ez ezik, kompetentziak ere eskuratzen dituzte. Zentzu horretan, metodologiak funtsezko hainbat elementu ditu. Prozesuaren emaitza «produktu» bat izango da: ikasleek modu ekologikoan hazitako barazkiak, beraien azalpen-fitxekin. Barazki horiek topaketan erabiliko dituzte. Hala, ikasleak informazioa lortzeko, arazoa ezagutzeko eta alternatibak proposatzeko prozesuaren protagonistak dira. Prozesu horretan, bada, proposamenaren gakoa elkarlana da.

NORI ZUZENDUTA DAGO

Proposamen didaktiko hau Nekazaritza arloko Lanbide-Heziketa ikasleei zuzenduta dago, hain zuzen ere, honako ziklo hauetako ikasleei:

NEKAZARITZA

ERDI-MAILAKOA

Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktzio teknikaria.
Nekazaritza ekologikoko teknikaria.

GOI-MAILAKOA

Paisajismoko eta landa-inguruneko goi-mailako teknikaria.

ZENBAT SAIO DITU

Unitate didaktikoak **5 saio** ditu. Horietatik, **3 gelan** izango dira, guztira, 4 ordu eta 10 minutu iraungo dutenak. Horiez gain, **esperientzia agroekologiko batera bisita** bat eta **jarraipen-saio** bat izango ditugu. Jarraipen-saioa ikasleek berek burutuko dute, irakaslearen laguntzaz.

02

UNITATE DIDAKTIKOAREN ESKEMA

SAIOA	HELBURU DIDAKTIKOAK	EDUKIAK
<p>LEHENENGO SAIOA (2 ordu) Elikadura Burujabetza vs. eredu agroindustriala</p>	<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Unitate didaktikoa eta hori koordinatzen duen erakundea ezagutzea. <input checked="" type="checkbox"/> Ikasleek gaiari buruz aurretik duten ezagutza ikustea. <input checked="" type="checkbox"/> Nekazaritza- eta elikadura-eredu biak bereiztea: elikadura burujabetza vs. eredu agroindustriala. <input checked="" type="checkbox"/> Horietako bakoitzaren abantailak eta arazoak aztertzea. 	<p>Nekazaritza- eta elikadura-eredu bi hauen ezaugarriak, abantailak eta arazoak: elikadura burujabetza eta eredu agroindustriala.</p>
<p>BIGARREN SAIOA (ordu 1 eta 20 min) Nekazaritza- eta elikadura-ereduaren ondorioak hemen eta han</p>	<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Iparralde-Hegoalde, landa-hiri eta gizon-emakume harremanen ondorioak esperimintatzea. <input checked="" type="checkbox"/> Elikadura-eredu agroindustrialak gizartean, ingurumenean eta osasunean dituen ondorioen gainean hausnartzea. <input checked="" type="checkbox"/> Ekoizpen agroekologikoa alternatibatzat hartzea. 	<p>Gizarte-talde desberdinen egoera eta mundu mailako elikagaien ekoizpenarekin eta kontsumoarekin duten harremana. Eredu agroindustriala eta bere ondorioak.</p>
<p>HIRUGARREN SAIOA (egun osoa) Txangoa: Agroekologia, errealitate bat</p>	<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Eredu agroekologikoa garatzen duen esperientzia bat ezagutzea. <input checked="" type="checkbox"/> Bisitatutako esperientziaren ezaugarriak, zailtasunak eta arrakastak aztertzea. <input checked="" type="checkbox"/> Horrelako esperientziak errealitate bideragarriak direla konturatzea. 	<p>Landan modu arduratsuan eta jasangarrian lan egiteko baloreak eta teknikak. Ekoizpen agroekologikoaren ezaugarriak, zailtasunak eta arrakastak.</p>
<p>LAUGARREN SAIOA (50 min) Elikadura burujabetza, ekoizpen ekologikoa baino gehiago</p>	<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Esperientzia agroekologiko baten alderdi desberdinak ebaluatzea. <input checked="" type="checkbox"/> Ekoizleek hainbat alderditan eragiteko duten gaitasunaren gainean hausnartzea. <input checked="" type="checkbox"/> Jarraitzeko ekintza zehaztea. 	<p>Ekoizpen-esperientzia horren jasangarritasuna ebaluatzeko adierazleak. Jarraitzeko ekintza.</p>
<p>JARRAIPEN-SAIOA Teoriatik praktikara</p>	<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Ikasitakoa aplikatzea. <input checked="" type="checkbox"/> Mundu bidezkoago eta iraunkorrago bat sortzen laguntzeko benetako alternatibak daudela praktikan erakustea. 	<p>Hazitako barazki/ortuari agroekologikoak eta horiei buruzko informazioa. Beste espezialitate batzuetako kideak ezagutzea eta horiekiko kohesioa.</p>

UNITATE DIDAKTIKOAREN ESKEMA

JARDUERAK	AGERTOKI DIDAKTIKOAK ETA IKASTETXEAREN BALIABIDEAK	BIDEZKO ELIKADURAREN BALIABIDEAK
1.1. Aurkezpen laburra. 1.2. Aldez aurreko ezagutzak: Elikadura Burujabetza, zer da? 1.3. Bi tomate eta bi patu. Zein aukeratu?	Gela arrunta. Baliabideak: Proiekzio- ekipamendua: Proiektorea/ bozgorailuak/PCa.	<input checked="" type="checkbox"/> Papelegrafoa: Zer da Elikadura Burujabetza? <input checked="" type="checkbox"/> Pendrive bat, «Bi tomate eta bi patu» film laburra duena.
2.1. Role playing. Elikaduraren arloko egoera desberdinen dramatizazioa. 2.2. Hurrengo saioaren prestaketa.	Gela arrunt bat baino handiagoa den gela. Baliabideak: bat ere ez.	<input checked="" type="checkbox"/> 1. eranskinaren kopia, alde bakarrekoa: Familien istorioak. <input checked="" type="checkbox"/> Mozorroak eta aurpegirako margoak. Makillajea kentzeko zapiak. <input checked="" type="checkbox"/> 2. eranskinaren kopia bana: Behaketa-fitxak.
3.1. Esperientzia agroekologiko bat bisitatu.	Ustiategi agroekologikoa. Baliabideak: bat ere ez.	<input checked="" type="checkbox"/> Ikastetxetik garraiatzeko autobusak. <input checked="" type="checkbox"/> 2. eranskinaren 5 kopia, alde bakarrekoak. <input checked="" type="checkbox"/> Behaketa fitxak.
4.1. Iraunkortasunaren lorea.	Gela arrunta. Baliabideak: Aldez aurretik, aurreko saioko fitxak beteta ekar ditzaten gogorarazi beharko diegu ikasleei.	<input checked="" type="checkbox"/> Bat ere ez
5.1.. Barazki ekologikoak haztea eta fitxak prestatzea 5.2. Ikastetxe arteko topaketa: ostalaritzako eta nekazaritzako ikastetxeak.	Irakasleak nahi duena.	<input checked="" type="checkbox"/> Bidezko Elikadurak topaketarako behar diren baliabide materialak emango ditu.

03

LEHENENGO SAIOA

2 ORDU

Elikadura Burujabetza vs eredu agroindustriala

HELBURU DIDAKTIKOAK	EDUKIAK	JARDUERAK
<ul style="list-style-type: none"> ☑ Unitate didaktikoa eta hori koordinatzen duen erakundea ezagutzea. ☑ Ikasleek gaiari buruz aurretik duten ezagutza ikustea. ☑ Nekazaritza- eta elikadura-eredu biak bereiztea: elikadura burujabetza vs. eredu agroindustriala. ☑ Horietako bakoitzaren abantailak eta arazoak aztertzea. 	<p>Nekazaritza- eta elikadura-eredu bi hauen ezaugarriak, abantailak eta arazoak: elikadura burujabetza eta eredu agroindustriala.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1.1. Aurkezpen laburra 1.2. Aldez aurreko ezagutzak: Elikadura Burujabetza, zer da? 1.3. Bi tomate eta bi patu. Zein aukeratu?

AGERTOKI DIDAKTIKOA: Gela arrunta.

IKASTETXEAREN BALIABIDEAK: Proiekzio-ekipamendua: Proiektorea/bozgorailuak/PCa.

BALIABIDEAK: Pendrive bat, «Bi tomate eta bi patu» film laburra duena. Papelografoa: «Zer da Elikadura Burujabetza?»

1.1. JARDUERA. Aurkezpen laburra**15 min****Garapena:**

Saioaren dinamizatzailleak bere burua aurkeztuko du eta, irakasleen laguntzaz, Bidezko Elikadura erakundea eta «Elikadura Burujabetza erein eta kozinatuz» proposamena aurkeztuko ditu. Hurrengo saioetan landuko den edukia ere laburki azalduko du.

**1.2. JARDUERA. Aldez aurreko ezagutzak.
Elikadura Burujabetza, zer da?****45 min****Taldekatzea:** Banaka.**Garapena:**

Elikadura Burujabetza edo agroekologia hitzak inoiz entzun dituzten galdetuko diegu ikasleei (agian, agroekologia ezagunagoa egingo zaie, beraz, jardueraren hasieran interesgarria izan daiteke hori erabiltzea). Hala, ikasleek beren ekarpenak egingo dituzte eta, oraingoan, irakasleak ez die zuzenduko baina kontuan hartuko ditu hurrengo saioetan horietara itzultzeko. Ondoren, Elikadura Burujabetza fase guztiak hartzen dituen elikadura-eredua dela azalduko die: ekoizpena, banaketa eta kontsumoa.

Elikadura Burujabetzaren arabera ekoizpenak, banaketak eta kontsumoak nolakoak izan behar duten galdetuko diegu ikasleei. Dinamizatzailleak sortzen den guztia idatziko du eta ahalik eta gutxien hartuko du parte. Jardueraren helburua aldez aurreko ezagutzak partekatzea da. Hala, papelografoa gelan geratuko da eta hurrengo saioetan osatzen jarraituko dugu.

ZER DA ELIKADURA BURUJABETZA?

Ekoizpena	Banaketa	Kontsumoa


1.3. JARDUERA. Bi tomate eta bi patu. Zein aukeratu?

60 min

Taldekatzea: Taldeka. Amaierako hausnarketa: talde osoa.

Garapena:

1. «**Dos tomates, dos destinos**» (Bi tomate eta bi patu) film laburraren proiektioan ekoizpen-eredu agroindustrialaren eta agroekologikoaren eragin positiboak eta negatiboak ikusiko ditugu. Ikasleek, binaka edo talde txikietan, eredu bakoitzak gizartean, ingurumenean, ekonomian eta gure osasunean dituen eraginak aztertuko ditu. Gero, ondorio horiek post-itetan idatziko dituzte eta arbelean itsatsiko dituzte honako irudi honen gainean:



2. Irakasleak ikasleek identifikatutako eraginak berrikusiko ditu eta talde osoarekin partekatuko ditu.
3. Ondoren, ikasleak bi taldetan banatuko dira. Talde bakoitzak hauteskunde-kanpaina bat sortu beharko du: «Bozkatu Mauricio» edo «Bozkatu K-44». Eztabaidarako prestatuko dira. Talde bakoitzak bere hautagaia bozkatzearen abantailak eta aurkaria bozkatzearen desabantailak azpimarratu beharko ditu, benetako eztabaida politikoeekin paralelismo bat eginez. Alderdiek ordezkari bana aukeratu beharko dute; batek

Maurizioarena egingo du eta besteak K-44rena. Gainontzeko kideak aholkulariak izango dira eta haiek ere parte hartu ahal izango dute eztabaidan. Eztabaida prestatzeaz gain, irratirako iragarkiak, kartelak, eta abar ere egin ahal izango dituzte (taldeak oso handiak izatekotan, talde txikiagoak era daitezke eta bakoitzari ekintza baten ardura eman). Taldeek eztabaida prestatzen duten bitartean, dinamizatzailea talde desberdinetatik igaroko da, orientazioa emateko helburuz. Horretarako, aurrerago emango ditugun jarraibideak kontuan hartu behar ditu irakasleak.



4. Prestaketaren ostean, talde bakoitzak bere kanpaina egingo du. Gero, talde biek eztabaidatuko dute. Bitartean, irakasleak talde bakoitzak azaltzen dituzten abantailak eta desabantailak idatziko ditu arbelean.

Eztabaidan, behar izanez gero, irakasleak galderak egin diezazkie hautagaiei.

Hona hemen adibide batzuk:

- ? Nola eta nork hazi du tomate bakoitza?
 - ? Zer nolako eragina du zure hautagaitzak gure osasunean?
 - ? Zer nolako eragina du zure hautagaitzak gure eskualdeko ekonomian?
 - ? Zer nolako ingurumen-eraginak ditu zure hautagaitzak gure eskualdean? Eta hegoaldeko herrietan?
 - ? Zer nolako eragin sozialak ditu zure hautagaitzak gure eskualdean? Eta hegoaldeko herrietan?
5. Eztabaida amaitutakoan, ikasleei deskonektatzeko eta beren rola uzteko eskatuko diegu eta, elkarrekin, sortutakoaren inguruan hausnartuko dute.

Hona hemen hausnarketarako galdera batzuk:

- ? Nola sentitzen zara zure ideiekin eta iritziekin babestu duzun hautagaiari dagokionez?
 - ? Nola sentitu zara beste hautagaiak zuri emandako tratuarekin? Eta nola tratatu duzu zuk bera?
 - ? Irudikatutako ereduen onuren eta arazoaren inguruan aurretik zenuten iritzia aldatu da?
 - ? Zer ikasi dugu jarduera honekin?
 - ? Zer eman digu jarduera honek guk ez genekiena edo aintzat hartzen ez genuena?
 - ? Zer egin dezakegu orain informazio horrekin?
 - ? Zer egin dezakegu gure egunerokoan hori aldatzeko, bai etxean eta bai lanean?
 - ? Zuen kontsumo-ohiturek ba al dute eragina eredu bata edo bestea babesteari dagokionez?
6. Azkenik, jakinda Mauriciok Elikadura Burujabetzaren eredu irudikatzen duela, 1.2. jardueraren taula betetzea eskatuko diegu.

04

BIGARREN SAIOA

80 min

Nekazaritza- eta elikadura-ereduaren ondorioak hemen eta han

HELBURU DIDAKTIKOAK	EDUKIAK	JARDUERAK
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Iparralde-Hegoalde, landa-hiri eta gizon-emakume harremanen ondorioak esperimentatzea. ✓ Elikadura-eredu agroindustrialak gizartean, ingurumenean eta osasunean dituen ondorioen gainean hausnartzea. ✓ Ekoizpen agroekologikoa ingurumenarekin eta gizartearekin begirunetsua den eta kontsumitzaileen kezka gero eta handiagorari erantzuten dion alternatibatzat hartzea. 	<p>Gizarte-talde desberdinen egoera eta mundu mailako elikagaien ekoizpenarekin eta kontsumoarekin duten harremana.</p> <p>Eredu agroindustrialak eta bere ondorioak.</p>	<p>2.1. Role playing. Elikaduraren arloko egoera desberdinen dramatizazioa.</p> <p>2.2. Hurrengo saioaren prestaketa.</p>

AGERTOKI DIDAKTIKOA: Gela arrunt bat baino handiagoa den gela.

IKASTETXEAREN BALIABIDEAK: Bat ere ez.

BALIABIDEAK: 1. eranskinaren kopia, alde bakarrekoa: Familien istorioak. Mozorroak eta aurpegirako margoak. Makillajea kentzeko zapiak.
2. eranskinaren kopia bana: Behaketa-fitxak.

2.1. JARDUERA. Role Playing. Elikaduraren arloko egoera desberdinen dramatizazioa.

60 min

Taldekatzea: Taldeka.

Garapena:

1. Irakasleak istorio bat kontatuko die ikasleei. Horretan, txerrikiaren ekoizpena hari bezala hartuz, prozesu horren eraginpean dauden familien egoerak azaldu eta lotuko ditu (ikus 1. eranskina). Gero, taldeek istorioan agertzen diren lau familia horien bizitzak antzeztuko dituzte.
2. Ikasleak lau taldetan banatuko dira. Talde bakoitzari dagokion familiaren istorioa emango diogu. Hori txerrikiaren ekoizpenarekin edo kontsumoarekin lotuta egongo da nolabait (ikus 1. eranskina). Behin antzezpena prestatuta, mozorrotzeko elementuak emango dizkiegu. Talde bakoitzean pertsonaiak banatuko dituzte eta familia horren bizitza erakusten duen dramatizazio txiki bat prestatuko dute. Irakasleak mozorro egingo dira eta gainontzeko taldeen aurrean antzeztuko dute. Dramatizazio bakoitzak 5 minutu inguru iraungo du. Ondoren, irakasleak ikasle guztiek antzeztutakoa ulertu dutela ziurtatuko du.
3. Antzez-lanen ondoren ikasleak eseriko dira eta antzeztutako egoeren eta haien arteko loturaren gaineko eztabaida txiki bat izango dute. Horretarako irakasleak «galdera gako» batzuk erabiliko ditu.

Eztabaidarako galderak:

- ? Ba al dute loturarik istorio bakoitzean agertzen diren arazoen gainontzeko istorioekin? Zer nolakoa?
 - ? Guztiek pairatzen al dute kalte berdina? Nortzuk pairatzen dute kalterik handiena? Zergatik?
 - ? Ba al dago gizonen eta emakumeen arteko alderik?
 - ? Eta istorioetan agertzen diren ekoizpen ereduak zer eragin negatibo dute ingurumenean?
 - ? Sektore horretako profesionalak zaretenean zer egin ahal izango duzue pertsonen eta ingurumenaren gaineko ondorio negatibo horiek saihesteko?
 - ? Zuen ustez, kontsumitzaileak gero eta arduratuago al daude gaur egungo elikadurak osasunean duen eraginarekin?
4. Azkenik, Elikadura Burujabetza definitzen duen taula osatuko dugu (1.2. jardueran agertzen den taula).



- Mutilek egiten dituzten paperen gainean hausnartuko dugu; adibidez, mutilek gobernatzailearena edo jauntxoarena egin ohi dute. Hain zuzen, hori ez da kasualitatea; izan ere, kargu gehienak gizonen eskuetan egoten dira. Datuak: 2016an emakumeek Espainiako enpresen zuzendaritza-karguen %26 betetzen zituzten. (Iturria: Grant Thornton-en Women in business 2016 nazioarteko ikerketa)/ Mundu mailan, lurraren %2 baino ez dago emakumeen eskuetan.

Nekazaritza arloko heziketa zikloetako ikasleen artean dauden mutilen ehuneko handiaren gainean hausnar dezakegu. Hori ez da kasualitatea eta horrelaxe azalduko diegu ikasleei, hain zuzen, emakumeek lurra lantzeko gaitasun bera dutela. Izan ere, leku askotan etxeko ortuak familiako emakumeek zaindu izan dituzte, praktika agroekologikoen bitartez.

Halaber, 4. taldearen istorioan ama familiaren osasunaz arduratzen da. Hortik abiatuz, etxeko lanak eta ardurak banatzearen garrantziari buruz hausnar dezakegu. Datu interesgarriak: Espainian, batez beste, emakumeak, egunero, gizonak baino hiru ordu gehiago ematen ditu etxeko lanetan. Etxetik kanpo lan egiten duten bikoteetan ere, emakumeak gizonak baino 2,5 ordu gehiago ematen ditu etxeko lanetan. (Lagina: Bikote heterosexualak 0-18 urteko seme-alabekin. Iturria: Denboraren erabilera neurtzeko Espainiako Inkesta, eldiario.es egunkaritik hartuta)

- FAOren arabera, 2000 eta 2010 artean, nekazaritza komertzialak Latinoamerikako deforestazioaren %70ren arduraduna izan zen/ Jaten dugun haragi kopuruaren gainean hausnartuko dugu. Hainbeste haragi jan ahal izateko, abereak eredu intentsiboan hazi behar dituzte eta horrek ondorio latzak ditu abereen ongizatean eta ingurumenean (berotegi efektuko gasak isurtzea, lurraren eta uraren ezaugarriak aldatzea, etab.). SOCLA Latinoamerikako Agroekologia Elkarte Zientifikoaren arabera, nekazaritza industrialak klima aldaketa sustatzen du berotegi efektuko gasen %25-30 isuriz. Davant la problemàtica existent i la consegüent preocupació social, estan sorgint alternatives: altres formes de consumir (per exemple grups de consum), petites tendes, artesans ecològics, restaurants que es regeixen pels criteris de la sobirania alimentària i tracten de comprar a productors locals. S'ha d'orientar la reflexió sobre com dita preocupació pot ser una oportunitat pels productors i productores agroecològics.
- Dagoen problematikaren eta kezka sozialaren aurrean alternatibak sortzen ari dira: kontsumitzeko beste modu batzuk (adibidez, kontsumo-taldeak), artisau-denda edo denda ekologiko txikiak, elikadura burujabetzan oinarritzen diren eta bertako ekoizleei zuzenean erosten dizkieten jabetxeak.

Hausnarketa hona bideratu behar dugu: nola kezka hori ekoizle agroekologikoentzako aukera bat izan daitekeen.

2.2. JARDUERA. Hurrengo saioaren prestaketa

20 min

Taldekatzea: Talde osoa.

Garapena:

Bisitari zehar egin beharko duten jarduera azalduko diegu ikasleei (ikus 3. saioa). Hala, behaketa-fitxak banatuko dizkiegu (2. eranskina) eta dena irakurtzeko denbora emango diegu. Zalantzarik egotekotan haien galderei erantzun diegu.

05

HIRUGARREN SAIOA

Egun osoa

Txangoa: Agroekologia, errealitate bat

HELBURU DIDAKTIKOAK	EDUKIAK	JARDUERAK
<ul style="list-style-type: none"> ☑ Eredu agroekologikoa garatzen duen esperientzia bat ezagutzea. ☑ Bisitatutako esperientziaren ezaugarriak, zailtasunak eta arrakastak aztertzea. ☑ Horrelako esperientziak errealitate bideragarriak direla konturatzeta. 	<p>Baserrian modu arduratsuan eta jasangarrian lan egiteko baloreak eta teknikak.</p> <p>Ekoizpen agroekologikoaren ezaugarriak, zailtasunak eta arrakastak.</p>	<p>3.1. Esperientzia agroekologiko bat bisitatu.</p>

AGERTOKI DIDAKTIKOA: Ustiategi agroekologikoa.

IKASTETXEAREN BALIABIDEAK: Bat ere ez.

BALIABIDEAK: Ikastetxetik garraiatzeko autobusak.
2. eranskinaren 5 kopia, alde bakarrekoak. Behaketa fitxak.

3.1. JARDUERA. Esperientzia agroekologiko bat bisitatu.

Egun osoa

Taldekatzea: Bisita talde osoak egingo du. Jarduera talde txikietan egingo dute.

Garapena:

Ekoizpen agroekologikoa duen esperientzia bat bisitatuko dugu. Ikasleek zuzenean ezagutuko dute bertan nola ekoizten duten, zailtasunak, abantailak, merkaturatze bideak, ekoizpen-teknikak, kontsumitzaileak nortzuk diren... Gainera, ekoizpen-prozesuan emakumerik parte hartzen duen eta zer paperarekin ere eztabaidatuko dugu.

Alderdi guztiak azter dezaten errazteko, ikasleak 5 taldetan banatuko ditugu. Bisitara gela bat baino gehiago badao, gela bakoitza 5 taldetan banatuko dugu; izan ere, gero ikastetxean talde bakoitzak bereiz garatuko du saioa bisitan batutako datuak erabiliz.

Talde bakoitzari alderdi bat egokituko diogu, behaketa-fitxa erabiliz, horren inguruko informazioa bil dezan (komeni da kide guztiek fitxaren kopia bat izatea). Honako hauek dira aztertuko ditugun alderdiak: baliabideak izateko aukera, ingurumenaren zaintza, ekoizpenaren maneiua, merkaturatzea eta, azkenik, barne harremanak eta asoziazionismoa (ikus 2. eranskina).

06

LAUGARREN SAIOA

60 min

Elikadura burujabetza, ekoizpen ekologikoa baino gehiago

HELBURU DIDAKTIKOAK	EDUKIAK	JARDUERAK
<ul style="list-style-type: none"> ☑ Esperientzia agroekologiko baten alderdi desberdinak ebaluatzea. ☑ Ekoizleek hainbat alderditan eragiteko duten gaitasunaren gainean hausnartzea. 	<p>Ekoizpen-esperientzia horren jasangarritasuna ebaluatzeke adierazleak.</p> <p>Jarraitzeke ekintza.</p>	<p>4.1. Iraunkortasunaren lorea</p>

AGERTOKI DIDAKTIKOA: Gela arrunta.

IKASTETXEAREN BALIABIDEAK: Aldez aurretik, aurreko saioko fitxak beteta ekar ditzaten gogorarazi beharko diegu ikasleei.

BALIABIDEAK: Bat ere ez.

4.1. JARDUERA. Iraunkortasunaren lorea

60 min

Taldekatzea: Taldeka.

Garapena:

1. Saioari ekiteko, bisita zer iruditu zaien galdetuko diegu ikasleei.
2. Gero, hau azalduko diegu: aurreko saioetan ikusi dugun bezala, esperientzia agroekologiko batean alderdi asko hartu behar ditugu kontuan eta esperientzia batek ere ez ditu alderdi guztiak erabat garatuta. Izan ere, esperientzia bakoitzean alderdi batzuek garapen handiagoa izango dute eta beste batzuek txikiagoa. Hala, eredu agroindustrialetik agroekologikora doan continuum bat dugu.

Egindako bisitak alderdi bakoitzaren eta hori garatzeko zailtasunen eta abantailen gainean hausnartzeko aukera emango digu.


3. Ikasleak bisitan banatu genituen bezalaxe banatuko ditugu. Talde bakoitzak aurreko saioan betetako behaketa fitxa izan beharko du. Esperientziari nota jartzeko eskatuko diegu, bildutako informazioan oinarrituz. Hala, nota altuena (10) ideal agroekologikoari dagokio. Nota jartzeko denbora emango diegu, haien artean eztabaida dezaten. Halaber, Elikadura Burujabetzaren printzipioetan oinarrituz, aztertutako alderdi hori nola hobe daitekeen eta hobekuntza hori ekoizleen eskuetan dagoen eztabaidatu beharko dute. Irakaslea taldez talde joango da orientabidea emanez.
4. Ondoren, talde bakoitzak bere azterketaren emaitza eta notaren zergatia partekatuko du gainontzekoekin. Era berean, hobetzeko aukerarik dagoen azalduko du.
5. Nota guztiekin iraunkortasunaren lorea osatuko dugu. Horretan, grafikoki ikusiko dugu, petaloen tamainaren arabera, bisitatutako ustiatagia zenbateraino den jasangarria, gizarteari eta ingurumenari dagokienez. Loreak, bada, 5 petalo izango ditu, petalo bakoitzak aztertutako alderdi bat irudikatzen duelarik. Hala, ikuspegi agroekologiko batetik zenbat eta garatuago egon alderdi hori eta, beraz, zenbat eta handiagoa izan taldeak emandako nota, orduan eta handiagoa izango da petaloa. Puntu bakoitzari 5 zentimetro dagozkio; hortaz, alderdi batek 9 puntu jasotzen baditu, hori irudikatzen duen petaloak 45 zentimetro izango ditu. Honahemen adibide bat:

IRAUNKORTASUNAREN LOREA

Adibidea:

1. **Baliabideak izateko aukera:**
9 puntu. 45 zm.
2. **Ingurumenaren zaintza.**
6 puntu. 30 zm.

...



6. Azkenik, beharrezkoa bada, lehenengo saioko taulari aurretik agertu ez diren elementuak gehituko dizkiogu, hori osatzeko asmoz. (Taula «Zer da Elikadura Burujabetza?»).

07

JARRAIPEN-SAIOA

Teoriatik praktikara: Gastronomia-erakusketa jasangarria

HELBURU DIDAKTIKOAK	EDUKIAK	JARDUERAK
<ul style="list-style-type: none"> ☑ Ikasitakoa aplikatzea. ☑ Mundu bidezkoago eta iraunkorrago bat sortzen laguntzeko benetako alternatibak daudela praktikan erakustea. 	<p>Hazitako barazki/ortuari agroekologikoak eta horiei buruzko informazioa.</p> <p>Beste espezialitate batzuetako kideak ezagutzea eta horiekiko kohesioa.</p>	<p>5.1. Barazki ekologikoen hazkuntza eta fitxak egitea</p> <p>5.2. Ikastetxe arteko topaketa: ostalaritzako eta nekazaritzako ikastetxeak.</p>

AGERTOKI DIDAKTIKOA: Irakasleak nahi duena.

IKASTETXEAREN BALIABIDEAK: Irakasleak nahi duena.

BALIABIDEAK: Bidezko Elikadurak topaketarako behar diren baliabide materialak emango ditu.

5.1. JARDUERA. Barazki ekologikoak haztea eta fitxak prestatzea

Iraupena: Irakasleak nahi duena

Taldekatzea: Irakasleak nahi duena.

Garapena:

Topaketari begira, ikasleek, irakasleen laguntzaz, gainbegiradaz eta aholkuaz, topaketara eramango dituzten barazkiak hazi beharko dituzte. Gainera, elikagai bakoitzeko fitxa bat osatu beharko dute, zenbait elementu kontuan hartuz. Horiek, agroekologia ulertzen eta aintzat hartzen lagunduko digute (ikus 5.2. jarduera). Halaber, ostalaritza ikasleentzat erabilgarria izan daitekeen beste tailerrik egin nahi izatekotan (adibidez, usain-belarren tailer bat), hori aldeaz aurretik prestatu beharko dute.

5.2 JARDUERA. Ikastetxe arteko topaketa: ostalaritzako eta nekazaritzako ikastetxeak.

Iraupena: Irakasleak nahi duena

Taldekatzea: Taldeka.

Garapena:

Ikasitakoa praktikan jartzeko momentua heldu dela azalduko diegu ikasleei eta, horretarako, ostalaritzako eskolarekin topaketa bat egitea proposatuko diegu. Topaketan, bada, ostalaritza ikasleek Elikadura Burujabetzaren printzipioetan oinarritutako gastronomia-erakusketa bat prestatuko dute eta nekazaritza ikasleok horretarako osagaiak eman beharko dituztela azalduko diegu. Beraiek hazitako barazkiak izango dira eta, horretarako, saioetan landutakoa kontuan hartu beharko dute. Halaber, elikagaiekin batera, azalpen-fitxak prestatu beharko dituzte eta horietan honako elementu hauek landu beharko dituzte:

Hazitako barazkiaren fitxa::

- | | |
|---|--|
| <input checked="" type="checkbox"/> Ohiko izena | <input checked="" type="checkbox"/> Ekoizpen-lekua.
(Printzipioz, ikastetxeko instalazioetan
produzituko dituzte) |
| <input checked="" type="checkbox"/> Izen zientifikoa | |
| <input checked="" type="checkbox"/> Familia | <input checked="" type="checkbox"/> Ekoizpen-modua
(Ekologikoa. Aipatu behar dute nola
ongarritu duten eta beste produkturen bat
erabili duten) |
| <input checked="" type="checkbox"/> Barietatea.
(Bertako barietatea den aipatu behar dute) | |
| <input checked="" type="checkbox"/> Azalpena | <input checked="" type="checkbox"/> Produktuaren prezioa
(garestiagoa izatearen arrazoia azalduz) |
| <input checked="" type="checkbox"/> Jatorri historikoa | |

Gainera, elikagaiak hazteaz eta fitxak prestatzeaz gain, topaketan honako hau egin beharko dutela azalduko diegu:

- ✓ Ikasitakoa ostalaritza ikasleei kontatu eta egindako jarduera desberdinak laburbildu. Hala, atentzioa eman dien hori azpimarratuko dute.
- ✓ Emandako barazki desberdinak aurkeztea fitxetan dagoen informaziorik garrantzitsuena azalduz.

Azkenik, topaketan beste jardueraren bat egin nahi izango duten galdetuko diegu ikasleei; adibidez, ostalaritza ikasleentzat erabilgarria izan daitekeen jarduera bat.

08

EBALUAZIO PROPOSAMENAK

Ebaluazio proposamen hau, ezagutzak -kognitiboak, emozionalak, prozedurazkoak- ulertzea/eskuratzea/ barneratzea baloratzeaz gain, subjektu kritiko eraldatzaileak sortzen laguntzen duten gaitasunak garatzera bideratzen da: erantzukizuna, kontzientzia kritikoa eta ekitatearekiko eta gizarte-justiziarekiko konpromisoa.

Hala, 2 errubrika hauek proposatzen ditugu, gida hau aplikatzean sortzen den ikasketa-prozesuaren dimentsio desberdinak ebaluatzeko:

- ✓ Genero-behaketari buruzko errubrika. Jantz itzan/k betaurreko lilak.
- ✓ Ikasleen talde-lanari buruzko ebaluazio-errubrika.

Ikasleek hasieratik errubrika horiek kontuan har ditzaten komeni da.

GENERO BEHAKETARI BURUZKO ERRUBRIKA

	BIKAIN	OSO ONGI	NAHIKO	GUTXI
	GENERO-EKITATEA ETA BIZIKIDETZA ONA	HARREMAN EKITATIBOAK IZATEKO AHALMEN HANDIA	GENEROAREN ERAGINA IZAN DEZAKETEN TENTSIOAK GÉNERO	GENERO- DESBERDINTASUNA
Nola sortu dira taldeak? Talde bereziak ala mistoak sortzeko joera dute?	Talde orekatuak sortzen dituzte.	Talde gehienak mistoak dira.	Orokorrean bereziak, batzuk mistoak.	Eratat bereziak.
Nola banatzen dira rolak taldeen barruan? Arreta berezia eskainiko diogu honi:	Rolak txandakatzen dira pertsona guztiek gaitasun desberdinak landu ditzaten (lidergoa, ordezkaritza, komunikazioa...).	Talde gehienetan eginkizunak eta rolak ekitativoki banatu dira, baina ez guztietan.	Talde gehienetan banaketak generoko joera du.	Neskek laguntza eta bitartekaritza rolak hartzten dituzte, lidergoa edo ordezkaritza baino gehiago.
Taldeetako zenbat bozeramaile dira neskak?	%60 baino gehiago.	%60 inguru.	%30 inguru.	Bat ere ez.
Lantaldeetan garrantzi bera ematen zaie nesken eta mutilen behar eta interesei?	Nesken eta mutilen beharra eta interesak entzuten, baloratzen eta aintzat hartzen dira, garatzen ari den lanarekin duten koherenziaren arabera eta inolako desberdintasunik gabe generoari dagokionez.	Nesken eta mutilen beharrei eta interesei, ustez, kasu bera egiten zaie, baina amaierako lanetan mutilen iritziek presentzia handiagoa dute. Beraz, implizituki, nesken ekarpenak ez dira berdin baloratzen.	Nesken behar eta interesei, ustez kasu egiten zaie, baina oso presentzia gutxi dute amaierako lanean.	Nesken beharrek eta interesak bigarren maila batean geratzen dira, beraien ekarpenak gutxiesten dituzte edo ez zaizkie behar adina garrantzia ematen talde- lanaren garapenean.
Hitza kentzen diote elkarri hitz egiterakoan?	Hitza errespetatzen dute eta besteei entzuten diote.	la ez diote hitza elkarri kendu eta hori gertatu denean ez da generoko arrazoiengatik izan.	Batzuetan hitza kendu diote elkarri eta batez ere neskei kendu diote.	Etengabe kendu diote hitza elkarri eta batez ere neskei.

	BIKAIN	OSO ONGI	NAHIKO	GUTXI
Gertatu izan al da genero arrazoiengatik gatazkarik edo tentsiorik?	Genero-ekitate eta bizikidetzaren onak Taldea harmonia ona du eta genero arrazoiengatik sor daitezkeen gatazka erregulatze aldera modu positiboan esku hartzeko gaitasuna garatu du.	Harreman ekitatiboak izateko ahalmen handia La ez da tentsiorik egon eta taldeak normaltasunez konpondu ditu izan direnak.	Generoaren eragina izan dezaketententsioak genero Tentsioak izan dira zentzu horretan, baina puntualak izan dira edo ez da argi identifikatzen generoarekin lotuta dauden.	Genero-desberdintasuna Errespetu faltak, gutxiespenak eta diskriminazioak eman dira nesken edo beste edozein pertsonaren aurka, itxurari edo generoko estereotipoei lotuta («maritxu», «mari-mutil», lodia edo argalazatea», etab.).
Edukiak genero-ikuspegiz landu dituzte?	Emakumeek elikaduran duten rola (lan produktiboa, erreproduktiboa, zaintzakoa eta komunitarioa) bistaratzen duten informazio-iturriak erabili beharraz jabetzen dira. Elikadura-ereduen egokitasuna baloratzean horietako bakoitzak emakumeengan duen eragina (positiboa/negatiboa) kontuan hartu dute, baita gizonen eta emakumeen artean ekitatea sustatzeko duten ahalmena ere.	La beti jabetu dira emakumeek elikaduran duten rola (lan produktiboa, erreproduktiboa, zaintzakoa eta komunitarioa) bistaratzen duten informazio-iturriak erabili beharraz. Elikadura-ereduen egokitasuna baloratzean horietako bakoitzak emakumeengan duen eragina (positiboa/negatiboa) kontuan hartu dute.	Generoaren eragina izan dezaketententsioak genero Zerbaite kasutan jabetu dira emakumeek elikaduran duten rola (lan produktiboa, erreproduktiboa, zaintzakoa eta komunitarioa) bistaratzen duten informazio-iturriak erabili beharraz. Batuetan, elikadura-eredu bakoitzak emakumeengan duen eragina (positiboa/negatiboa) kontuan hartu dute.	Genero-desberdintasuna Ez dira ia inoiz jabetzen emakumeek elikaduran duten rola (lan produktiboa, erreproduktiboa, zaintzakoa eta komunitarioa) bistaratzen duten informazio-iturriak erabili beharraz. Ez dira elikadura-eredu bakoitzak emakumeengan duen eragina (positiboa/negatiboa) seinalatzeko gai.



- Zaintzaren ikuspegia
- Hizkuntza inklusiboa, ez sexista
- Nesken ahalduntzea
- Ezagutza ez androzentrikoa
- Eskubideak ezagutzea eta erabiltzea
- Botere-harreman ez autoritarioak (boterea zeren gainean), lidergo partekatua (boterea norekin)

TALDE-LANARI BURUZKO EBALUAZIO-ERRUBRIKA

	OSO GAI	GAI	HOBE DEZAKE	EZGAI
Talde-lanagatikogogobetetzea	Gogobetetze-maila altua adierazi du taldean lan egin ahal izateagatik.	Talde-lanean eroso sentitu da eta elkarlanean parte hartu ahal izan du.	Gogo handirik gabe baina modu egokian parte hartu du elkarlanean.	Ez da eroso sentitu taldean lan egiten.
Talde-lanak egitea	Jarrera positiboa eta proaktiboa izan du, taldeari bere gaitasuna eskainiz eta taldekideengandik ikasiz. Lan-giro egokia sortzen lagundu du eta taldekideen kritikak eta gomendioak onartu ditu.	Jarrera aktiboa izan du eta egokitu zaizkion lanetaz arduratu da. Lan-giro egokia sortzen lagundu ohi du eta taldekideen kritika eta gomendio gehienak onartu ditu.	Bere eginkizunak bete ditu, gutxieneko lana eginez baina gehiago inplikatu gabe. Ez du lan-giro egokia sortzen lagundu eta, orokorrean, ez ditu taldekideen kritikak eta gomendioak onartu.	Ez ditu beti egokitutako lanak egin, ez denboraren eta ez formaren aldetik. Lan-giro txarra sortzen du; taldekideei kritikak egiten dizkie baina ez ditu beraien kritikak onartzen.
Banakako erantzukizuna	Egokitutako eginkizun guztiak bete ditu. Oso ondo antolatzen ditu lanak eta modu eraginkorrean kudeatzen du denbora.	Eginkizun gehienak bete ditu. Ondo antolatzen ditu lanak eta horiek egiteko denbora.	Proposatutako jardueretako batzuk besterik ez ditu egin. Lan-planifikazioa eta denboraren kudeaketa hobe ditzake.	Ez du jarduerarik egiten. Lan-planifikazioa kaotikoa da eta aurreikusitako denborak ez dira nahikoak.

	OSO GAI	GAI	HOBE DEZAKE	EZGAI
Jardueren aurkezpena	Aurkeztutako jarduerak bikainak izan dira eta edukiak -genero-ikuspegia txertatzen dutenak -diziplinar-teko ikuspegi batetik lantzen ditu. Oso modu zehaztean arazoitzen du eredu agroindustrialaren aurrean elikadura burujabetza babestera daraman logika.	Aurkeztutako jarduerak oso onak izan dira eta edukiak diziplinar-teko ikuspegi batetik lantzen da. atal batueta besterik ez du erabiltzen. Elikadura burujabetza babesteko argudio nahiko ematen ditu.	Aurkeztutako jarduerak egokiak izan dira eta edukiek ez dute diziplinen araberako ikuspegitik; genero-ikuspegia atal bakar batean lantzen da. Elikadura burujabetza babesteko arrazoi batzuk ematen ditu.	Aurkeztutako jarduerak nahasiak dira eta egitura eskasa. Elikadura-ereduen deskribapenean okerrak daude
Parte-hartzea	Landutako gaien inguruan interes handia adierazten du, galdere egokiak egiten ditu, bere iritziak eta hausnarketak partekatzen ditu, gelako eztabaidetan gogoz parte hartzen du, adi dago, eta gelakideen argudioetara irekita dago.	Landutako gaien inguruan interesa adierazten du, bere iritziak eta hausnarketak partekatzen ditu, gelako eztabaidetan gogoz parte hartzen du.	Landutako gaien inguruan nolabaiteko interesa adierazten du, gelako eztabaidetan parte hartzen du bere iritzia edo hausnarketak eskatzen zaizkionean bakarrik.	Oso interes gutxi adierazten du landutako gaien inguruan, bere iritziak eta hausnarketak zailtasunez adierazten ditu eta ezinbestekoa denean bakarrik parte hartzen du gelako eztabaidetan.

	OSO GAI	GAI	HOBE DEZAKE	EZGAI
Jarrera eta balioak	<p>Kritikoagoa da jaso duen informazioari esker.</p> <p>Elikaduraren problematika lantzeko ikuspegi desberdinak baloratzen ditu eta tokiko-global dimentsioa kontuan hartzen du.</p> <p>Kontsumo-ohituren eta gaur egungo osasun-, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-arazoan arteko harremanaz jabetzen da.</p> <p>Elikadura aldatzeko eta ohitura osasungarriagoak eta kontsumo arduratsuagoa izateko gogoia adierazten du.</p> <p>Solidarioa eta enpatikoa da gertuko zein urruneko errealitate eta pertsonekin, baita planetaren kontserbazioarekin ere, kontsumoaren eta ingurumen- eta gizarte-ondorioen arteko lotura ulertzen baitu.</p>	<p>Gero eta kritikoagoa da jaso duen informazioari esker.</p> <p>Aurkeztutako arazoa tokiko-global ikuspegi batean oinarrituz baloratzen du.</p> <p>Gero eta gehiago, kontsumo-ohituren eta gaur egungo osasun-, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-arazoan arteko harremanaz jabetzen da.</p> <p>Elikadura osasungarriagoa eta kontsumo arduratsuagoa izatearren, zenbait aldaketa egiteko gogoia adierazten du.</p> <p>Solidarioa eta enpatikoa da gertuko errealitateekin eta planetaren kontserbazioarekin.</p>	<p>Espiritu kritiko gutxi du, daukan informazioa errepikatzeke joera du.</p> <p>Aurkeztutako arazoa bere egunerokoarekin lotutako alderdien arabera bakarrik lantzen du.</p> <p>Kontsumo-ohituren eta gaur egungo osasun-, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-arazoan arteko harremanaz jabetzeko zailtasunak ditu.</p> <p>Elikaduran zenbait aldaketa egiteko prest dago orain arte izandako eredu osasungaitzari eta eutsiezinari uko egin behar ez badio.</p> <p>Ez da oso solidarioa eta enpatikoa aurkeztutako gizarte- eta ingurumen-arazoekin.</p>	<p>Informazio kritikoki aztertzeke zailtasunak ditu.</p> <p>Elikadura arloko arazoan irakurketa partzialak edo loturarik gabekoak egiten ditu.</p> <p>Ez da kontsumo-ohituren eta gaur egungo osasun-, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-arazoan arteko harremanaz jabetzeko gai.</p> <p>Ez dago elikadura osasungarriagoa eta kontsumo arduratsuagoa izateko aldaketarik egiteko prest.</p> <p>Ez da batere solidarioa, ez pertsona txirokekin, ez planetarekin, eta gainera zoritxarreko eta errespeturik gabeko komentarioak egiten ditu.</p>

ERANSKINA



1. ERANSKINA. FAMILIEN ISTORIOAK

► 1. TALDEA:

PARAGUAIKO FAMILIA BASERRITARRA ETA JAUNTXOA

Pertsonaiak

(Oharra: pertsonaiak orientatzeko dira, pertsonai gehiago edo gutxiago izan daitezke taldean, horrek pertsonaiak aldatzea eskatuko duelarik).

- Ama baserritarra.
- Aita baserritarra.
- Semea(k) eta/edo alaba(k).
- «Sojaren jauntxoa» (soja produzitzen duten lur asko dituen).
- Jauntxoaren bezeroa (soja eroslea).
- Soja-hazien, ongarrien eta pestiziden saltzailea.
- Jauntxoaren lehengusua, eskualdeko gobernatzailea ere dena.

Argudioa:

Gure familia protagonistak etxeko elikagaiak ekoizteko ortu txiki bat du. Soberakinak merkatuan saltzen dituzte. Familia xumea da baina ez dute goserik pasatzen.

Jauntxo batek lurrak erosi nahi dizkie eta bere soja soroetan lana eskaintzen die. Azkenean, familiak amore ematen du; lursaila saldu eta jauntxoaren soroetan lan egiten hasten da. Hasieran, ondo doakie, dagoeneko ez dituzte beraien elikagaiak ekoizten baina diru nahikoa dute behar duten guztia merkatuan erosteko

Zoritxarrez, denborarekin, sojaren jauntxoak familia kaleratzen du. Antza denez, produzitutako soja erosten zion pertsonak askoz merkeago lortzen du orain eta, hortaz, ez dio berari gehiago erosiko.

Jauntxoarentzat, hori arazo larria da; izan ere, kimikoen eta hazien saltzaileari dirua zor dio. Hala, mailegu bat eskatzen dio bere lehengusua den gobernatzaileari hirian negozio bat martxan jartzeko asmoz.

Familia baserritarra lanik gabe geratu da eta ez dauka bere ortua lantzeko aukerarik; izan ere, lurra guztiz hondatuta dago sojaren laborantzan erabilitako ongarririk eta pestizida kimikoen eraginez. Orain bai, familiak gosea pasatzen du eta herria utzi behar izaten du hirira joateko. Hori gutxi balitz, seme (edo alaba) batek gaixotasun alergiko bat garatu du sojaren laborantzan erabilitako kimikoen eraginez.

▶ 2. TALDEA:

FAMILIA TXERRIZAINA ESPAINIAN

Pertsonaiak

(Oharra: pertsonaiak orientatzeko dira, pertsonai gehiago edo gutxiago izan daitezke taldean, horrek pertsonaiak aldatzea eskatuko duelarik).

- Aita txerrizaina (65 urteko gizona, ama txerrizainaren senarra).
- Ama txerrizaina (60 urteko emakumea, aita txerrizainaren emaztea).
- Supermerkatuko komertziala (supermerkatuan saltzen den haragia abeltzainei erosten diena).
- Baserrian geratu nahi ez duen semea/alaba.
- Baserrian geratu nahi duen baina abeltzaintzak bizitzeko nahikoa ez ematearen beldur den semea/alaba.
- Pentsu-saltzailea.

Argudioa:

Familiak 60 txerri ditu baina horiekin nekez estaltzen dituzte gastu guztiak. Duela 20 urte, 35 txerrirekin 4 kideko familia baten gastuak estaltzea eta aurrezteak ere posible zen baina, gaur egun, 60rekin kostata heldu dira hilabete amaierara. Izan ere, erabiltzen duten pentsua, Paraguaitik ekarritako sojaz egina, gero eta garestiagoa da eta kontuek ez dute koadratzen (lehen auzoko batek ekoizten zituen babekin elikatzen zituzten txerriak, baina horrek aspaldian utzi zuen negozioa). Gainera, supermerkatuko komertzialak gero eta merkeago ordaintzen die haragia, ondoko herrian 1000 txerri dituen enpresa handi bat baitago, haragia oso merke saltzen duena. Haragi horrek kalitate txarragoa du, hori komertzialak berak onartzen du baina, gaur egun, jendeak ez omen du kalitateagatik erosten, prezioagatik baizik...

Txerrizainek lan egiten jarraitzen dute, gustuko baitute beraien lana. Baserrian haziak dira biak eta baserriak beti eman izan die jaten; baserririk gabe ez dira deus. Baina beren seme-alabentzat ez da gauza bera. Gurasoek seme-alabek txerriak hazten jarraitzea nahiko lukete baina, egia esan, beraiek lan egiteari uzten diotenean ustiategiaren amaiera izango dela ematen du; izan ere, gero eta zailagoa da abeltzaintza familiarrarekin bizita duina lortzea.

▶ 3. TALDEA:

TXERRIAK EKOIZTEN DITUEN ENPRESA INDUSTRIALA ESPAINIAN

Pertsonaiak

(Oharra: pertsonaiak orientatzeko dira, pertsonai gehiago edo gutxiago izan daitezke taldean, horrek pertsonaiak aldatzea eskatuko duelarik).

- Enpresaburua.
- Albaitaria.
- Botika- eta pentsu-saltzailea.
- Enpresaburuari kotxe-negozio baten zati bat eskaintzen dion laguna.
- Supermerkatuko komertziala.

Argudioa:

Enpresak txerri-ustiategi intentsiboa du, 1000 txerrama baino gehiago dituena. Ekoiztutako haragia supermerkatu-kate bati saltzen dio bestelako arazorik gabe (hainbeste animalia dituenaz, supermerkatuaren eskariari erraz erantzuteko gai da).

Egun batean, txerriak gaixotzen hasten dira. Albaitariak enpresaburuari azaltzen dionez, txerri asko dago eremu txiki batean eta horregatik gaixotzen omen dira. Beraz, albaitariak txerri kopurua murriztea proposatzen dio. Enpresaburuak ez du hori bideragarri ikusten, eremu txikietan haragi kopuru handiak produzitu behar baititu irabaziaz handitzeko. Gauzak horrela, albaitariak animaliei egunero botikak ematea beste konponbiderik ez du.

Albaitaritzagastuekin eta pentsuaren prezioaren igoerarekin negozioak gero eta irabazi gutxiago ditu. Lagun batek kotxe-negozio baten zati bat eskaintzen dio enpresaburuari. Horrek, hori hartzea eta txerri-industria saltzea erabakitzen du. «Berdin da kotxeak ala txerriak; kontua da dirua irabaztea» dio enpresaburuak erabakia hartzea.

▶ 4. TALDEA:

FAMILIA KONTSUMITZAILEA ESPAINIAN

Pertsonaiak

(Oharra: pertsonaiak orientatzeko dira, pertsonai gehiago edo gutxiago izan daitezke taldean, horrek pertsonaiak aldatzea eskatuko duelarik).

- Aita.
- Ama.
- Medikua.
- Seme/alaba obesoa.
- Auzoko dendako saltzailea.

Argudioa:

Gurasoetako batek kolesterol-maila altua du eta semea/alaba obesoa da. Beste gurasoa kezkatuta dago familiaren osasunagatik. Medikua esaten dienez, haien gaixotasunak elikadurari lotuta daude eta ez badiote berehala arazoari aurre egiten, ondorioak latzagoak izan daitezke. Halaber, elikadurak zenbait gaixotasunetan eragina duela azaltzen die; hala nola, diabetesean, hainbat gaixotasun kardiobaskularretan eta zenbait minbizitan.

Beraz, lehenik eta behin, elikadura-ohiturak aldatu behar izango dituzte. Medikua arabera, haragia asteen behin edo bitan jan behar dute gehienez eta hestebeteak eta, orokorrean, elikagai prozesatuak -freskagarriak, opilak, etab.- ahalik eta gutxien; izan ere, azken horiek koipe, gatz, azukre eta gehigarri asko dituzte. Bestalde, zereal, barazki, fruitu eta lekale gehiago hartzea gomendatzen die. Gainera, bertako eta sasoiko produktuak erostea gomendatzen die, horiek kimiko gutxiago izaten baitituzte, eta ekologikoak badira, askoz hobeto.

Beraz, familia elikagai fresko gehiago hartzen hasten da. Haragiari dagokionez, auzoan eskualdeko eta kalitate handiko haragia duen harategi bat aurkitzen dute. Apur bat garestiagoa da baina, haragi gutxiago hartzen dutenez, hori erosteko aukera dute. Halaber, erosteko modu berri horren bitartez, dena txikiei laguntzen diete, auzoko ekonomia sustatuz.

2. ERANSKINA. BEHAKETA-FITXAK

1. BALIABIDEAK IZATEKO AUKERA

Lurra	<p>Zer baldintzetan duten lurra (jabetza, alokairua) eta noiz arte. Lurra lortzeko zailtasunak izan dituzten.</p>
Haziak	<p>Haziak erosten ala ugaltzen dituzten, hazien bankurik duten, haziak trukutzen dituzten.</p>
Abereak	<p>Abereak erosten edo baserrian bertan ugaltzen dituzten.</p>
Ura	<p>Ur nahikoa dagoen, hori nondik hartzen duten eta hori birziklatzen duten.</p>
Heziketa	<p>Nola trebatu diren: familian bertan ala ikastarorik egin duten... Trabatzeke zailtasunak izan dituzten eta zergatik.</p>
Beste baliabide batzuk	<p>Diru-laguntza izan duten ala ez. Baiezkoan, hori familiarena, lagunena, bankuena izan den. Zailtasunak izan dituzten eta zergatik.</p>

2. INGURUMENAREN ZAINZA

Kimikoen erabilera ekoizpen-prozesuan	<p>Ekoizpen- edo kontserbatze-prozesuan kimikorik erabiltzen duten (baiezkoan, zer nolakoak). Produktu ekologikoak erabiltzekotan, zer nolakoak diren aipatu.</p>
Energiaren erabilera	<p>Zer energia mota erabiltzen duten. Energia berriztagarriak erabiltzen dituzten edo energia aurrezteko zer bait egiten duten.</p>
Basoaren kudeaketa	<p>Basoa babesteko neurririk hartzen duten: baso-landareak landatzen dituzten edo, aitzitik, egiten duten maneia deforestazioa sustatzen duen.</p>
Hondakinak	<p>Hondakinak sortzen dituzten, zer nolakoak, horiekin zer egiten duten.</p>
Produktua garraiatzea	<p>Gertu ala urrun saltzen duten.</p>
Prozesatzea	<p>Produktua transformatzen duten, eraldaketa hori nolakoa den: artisaua, ekologikoa... Gehigarririk edo kontserbatzailerik erabiltzen duten.</p>
Ontziratzea	<p>Produktua ontziratzen duten eta zer nolako materialekin: plastikoa, beira...</p>

3. EKOIZPENAREN MANEIOA

Haziak	Zer nolako haziak erabiltzen dituzten: tokiko barietateak, komertzialak...
Abereak	Zer nolako arrazak erabiltzen dituzten. Tokikoak diren, eskualdera egokituta dauden.
Abeltzaintza- nekazaritza integrazioa	Abeltzaintza eta nekazaritza egiten diren kasuetan, zer nolako neurriak dituzten biak integratzeko. Adibidez, abereen satsa nekazaritzan erabiltzen duten.
Laboreen txandaketa eta aniztasuna	Monolaborantza edo laborantza desberdinak dituzten. Laboreak txandatzen dituzten eta nola egiten duten.
Ongarritzea	Ongarri kimikoak ala ongarri naturala (satsa) erabiltzen duten. Satsarekin konposta egiten duten.
«Belar txarren» kudeaketa	Horiek kentzen dituzten eta nola. Herbizidarik erabiltzen duten (zer nolakoak) edo belarrak eskuz edo makinaz kentzen dituzten.
Izurriteen eta gaixotasunen kudeaketa	Prebentzio-neurriak dituzten. Izurriteak edo gaixotasunak agertzekotan zer nolako neurriak hartzen dituzten eta zer nolako produktuak erabiltzen dituzten.
Zikloak ixtea	Ortuko hondakinekin zer egiten duten. Abererik dagoen, abereen elikagaiak baserrian bertan ekoizten dituzten ala erosten dituzten. Abereen hondakinekin zer egiten duten. Produzitutako elikagaiak prozesatzen badituzte, beraiek egiten duten ala lehengaia saltzen duten beste enpresa batek prozesa dezan.

4. MERKATURATZEA

Zer saltzen dute	Lehengaia ala produktu eraldatua saltzen duten, eraldatua izatekotan zer produktu den.
Non saltzen dute	Beraien produktua non saltzen duten (zein hiritan edo eskualdetan).
Nori saltzen diote	Kontsumitzaileei zuzenean edo lehengaia eraldatzen duen beste enpresa bati edo bitartekari bati saltzen dioten (zer nolakoa: denda txikia/azalera handia/jatetxea...).
Nola saltzen dute	Kanal alternatiboetan parte hartzen duten (saskiak, kontsumo taldeak/kooperatibak).
Banaketa	Kanpoko banatzaile baten bitartez saltzen duten edo beraien banatzen duten.
Nork erabakitzen ditu prezioak eta nola	Prezioak ekoizleak ala bezeroak erabakitzen dituen, edo adostasun batera heltzen diren. Prezioak erabakitzean, zer nola aldagarriak duten eragina.
Ekoizpen gailurrak	Ekoizpen gailurrak dauden. Produktu horiek nola saltzen diren.

5. BARNE HARREMANAK ETA ASOZIAZIONISMOA

<p>Jabeak (gizonak eta emakumeak bereizi)</p>	<p>Negozioak zenbat jabe dituen eta, horien artean, zenbat diren gizonak eta zenbat emakumeak</p>
<p>Kontrataturako pertsonak (gizonak eta emakumeak bereizi)</p>	<p>Langileak izatekotan, zenbat dituen eta, horien artean zenbat diren gizonak eta zenbat emakumeak.</p>
<p>Zer nolako lanak egiten dituzte</p>	<p>Zer nolako lanak egiten dituzten, gizonak eta emakumeak egindakoak bereiziz.</p>
<p>Belaunaldi arteko erreleboa dago?</p>	<p>Enpresarekin jarraituko duen gazterik dagoen.</p>
<p>Nola hartzen dira erabakiak</p>	<p>Bilerak egiten dituzten eta horietan zer nolako kontuak lantzen diren.</p>
<p>Asoziazionismoa</p>	<p>Nekazaritza-elkarte edo-sindikatu baten kideak diren eta horri zer nolako abantailak ikusten dizkioten.</p>

OHARRAK

A large empty rectangular box with a green border, intended for notes or observations. The bottom right corner of the box is folded over, creating a triangular green shape.

Alimentación Bidezko Elikaduraren eta Hegoa institutuaren hezkuntza proposamen bat da. Horren bitartez, Elikadura Burujabetzaren printzipioetan oinarritutako elikadura eredu alternatibo bat sustatu nahi dugu. Hala, ikastetxea elikadura onarekin eta bizitzaren iraunkortasunarekin konprometitutako instituzio bat bihurtzen da.

Alimentaciónetik irakasleak eta ikasleak laguntzen ditugu, hauen bitartez: prestakuntzak, tailerrak, baliabide didaktikoak, etab. Baliabide horiek erabiliz, hezkuntza komunitatea gure elikadura ereduak gizartean, ekonomian eta ingurumenean dituen ondorioen (ekoizpena, banaketa, merkaturatzea eta kontsumoa) inguruan kontzientziatu nahi ditugu. Gizarte-hezkuntza ekimen horrek elikaduraren gaia ikuspegi global batetik lantzen du, genero eta iraunkortasun ikuspegietan oinarrituz. **Alimentación** programak Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren (AECID) laguntza du.

